



BEZEROAREKIKO HARREMANA

Horregatik gure enpresa ezagutzera emateko Leioako udaletxearekin harremanetan jartzeko idea dugu, haien laguntzarekin herriko jendeari gure zerbitzua aurkezteko eta bilerak sortzeko. Hau da, diru kantitate zehatz bat ordainduz gero udaletzeak Elkarrekin S.A-ren zerbitzuen bilerak sortuko dituzte.

Gainera Leioan kokatuta dagoen Hirugarren adineko pertsonen zentroan oharra emango du eta gure proiektua aurkeztuko du, bat baino gehiagori interesatuko zaiolako.

Honetaz gain, gure enpresak bere publizitate propioa izan dezan, instagram kontu bat irekiko dugu. Instaram kontuan gure enpresaren aurkezpena egingo da, pisuen argazkiak egongo dira eta bertan gure enpresaren informazio guztia agertuko da. “@ElkarrekinSA “ hori izango da gure instagram kontuan izango dugun izena, erraza eta eroso delako bilatzeko orduan. Modu honetan beharra duten adineko pertsonen familiartekoetara iritsiko gara, gure negozioaren berri izango dute eta beraien adineko familiko kidearen bizitza hobetuko duten zerbitzuaren berri jasoko dute, interesa piztuz eta informazioa lortuz.



Behin gure zerbitzuak kontratatu eta izapide guztiak eginda, gure bezeroen segimendua egingo dugu, dena behar bezala dabilela eta gure laguntzak arrakasta izan duela ziurtatzeko. Horrela ez bada, sortu ahal diren arazoak konpontzen saiatuko gara.

Ahoz ahokoa garrantzitsua izango da ere bezeroak lortzeko orduan, hau da, bezeroak pozik badaude gure zerbitzua aholkatuko dute eta hau da bezero berriak lortzeko beste bide nagusi bat. Geroz eta gehiago agertuko den beharra da eta konfiantzazko mezuak eta aholkuak jasotzean bide hau aukeratzeko pausua eman dezakete bezero berriek.